



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO MARTXOAREN 27AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Irene Gartzia Palacios.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Alaitz Aizpurua Labakak eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/03/13.

Batzarkideek, 2018ko martxoaren 13ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- BIHURRI TXIKI LUDOTEKA ELKARTEA ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA.

Esp.zk.: ID.17/2018-0119

IKUSIRIK

Usurbilgo Udaleko Udal Erregistro Orokorrean, Saioa Fernández Iribar andreak Bihurri Txiki Ludoteka Elkartearen izenean, 2018ko martxoaren 14ean 983 zenbakia duen eskabidea aurkeztu duela. Bertan, aipatutako elkarte Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzea eskatu duela.

Eskabidearekin batera, irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntuan aipatzen den dokumentazioa ere aurkeztu duela:

- a) Eusko Jaurlaritzako Elkargoaren Erregistroan inskribatua egotearen agiri eguneratua.
- b) Elkartearen estatutuak.
- c) Helbide soziala.
- d) Zuzendaritzaren izen osoak.
- e) Titularra elkargoa izango den bankuko kontuaren zenbakia.

Kultura, euskara eta gazteria teknikariak aipatutako elkarte irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin duela. Txostena espedientean jaso da eta honela dio txostenaren ondorioak: *“Bihurri Txiki Ludoteka Elkarteak garatzen duen jarduera udalaren onurakoa da. Honenbestez, Bihurri Txiki Ludoteka Elkarte irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egiten dut.”*



Usurbilgo Udala

KONTUTAN HARTURIK

Udalaren irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).

Kultura, euskara eta gazteria teknikariaren txostena kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENEA: Bihurri Txiki Ludoteka Elkartea irabazi asmorik gabeko elkarteen udal erregistroan inskribatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta udal kontu-hartzaitzari ematea.

3.- AGINAGAKO ERRIBERAKO KALEA 1A ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0439

Aginagako ERRIBERAKO KALEA 1 A JABEKIDEEN ELKARTEAREN (H-75167460) ordezkartzan diharduen OSCAR GARCÍA LAVÍN jaunak, Aginagako Erriberako kalea 1A etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 60.058,09 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 233,74 € Fidantza (%120): 280,48 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2017ko martxoaren 15ean ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Aginagako ERRIBERAKO KALEA 1 A JABEKIDEEN ELKARTEAREN (H-75167460) ordezkartzan diharduen OSCAR GARCÍA LAVÍN jaunari, Aginagako Erriberako kalea 1A etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:
apean:



Usurbilgo Udala

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Aurkeztutako eranskinak dagokion elkargoak ikus-onetsita aurkeztu beharko dira 15 eguneko epean. Planoek eskalan egon beharko dute.

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 233,74 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (280,48 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

280,48 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza-hondakinak: HZ.04/2017-0439*" jarriaz kontzeptuan.

- OSCAR GARCÍA LAVÍN arkitektoak 2017ko uztailean (EHAE0 2017-08-08) idatzitako Exekuzio Proiektuari eta aurkeztutako eranskinei egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Igogailuaren kabinak eta sarrerako atea ezingo dute inolaz ere proiektuaren lehenengo eranskinean jasotako neurriak baino txikiagoak izan (0,87m x 1,2m-ko kabina eta 0,7m-ko sarrerako atea). Aitzitik, obran araudiak ezarritako neurrietara egokitzeko edo gehiago hurbiltzeko aukera balego hauek bete beharko dira (0,90m x 1,2mko kabina eta 0,8m-ko sarrerako atea). Gainontzean, EKTak eta Irisgarritasun Araudiak ezarritako neurriak eta baldintzak bete beharko dira; besteak beste:
 - Kanpotik igogailurainoko koskarik ez da egongo.
 - Igogailuaren aurrean solairu bakoitzean 1,4 m-ko diametrodun zirkunferentzia librea trazatu ahalko da.
 - Igogailurainoko korridoreak gutxieneko 1,1m-ko zabalera izango du.
- Igogailuak indarren den araudia eta Soinuaren legeak ezarritako soinu gehiengoa bete beharko du etxebizitzaren eremuan, horretarako proiektuan eta obran beharrezkoak diren neurriak hartu beharko direlarik.
- Proiektuko argazkietan badirudi patioko estalkia amiantozkoa dela. Proiektuan estalki hori bere horretan mantenduko dela esaten da. Dena den, manipulatu beharko balitz indarrean dagoen araudia bete beharko da.

- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**



Usurbilgo Udala


- Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritzea epe gehiengoa: urte 1.
- Obra burutzeko zoru publikoa erabili behar bada udal baimena eskatuko da, kokapena, hartuko den azalera eta haserako eta bukaerako egunak zehaztuaz horretarako prestatua dagoen udal-inprimakian.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planuak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Ilogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
 - Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- BEREIZTU, S.L. ENPRESARI, HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-104 (ATALLU) EREMUAN ERAIKIKO 2.000 M²-KO LAU PABILOI INDUSTRIALETAKO BI PABILOI INDUSTRIALEN (1. ETA 2. PABILOIAK) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2016-0604

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko martxoaren 28an, BEREIZTU S.L. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) eremuan, 2.000 m²-ko lau pabiloi industrial eraikitzeke udal baimena ematea erabaki zuen.



Usurbilgo Udala



LEHEN ERABILERA PARTZIALA (3. pabiloia)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko urriaren 10ean, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) eremuan eraikitako 2.000 m²-ko pabiloi industrial bati (Aintzia kalea 3) lehen erabilera baimena ematea erabaki zuen.

LEHEN ERABILERA PARTZIALA (1. eta 2. pabiloiak)

Orain berriz, BEREIZTU, S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) eremuan, eraikitako 2.000 m²-ko beste bi pabiloi industrialen (1. eta 2. pabiloiak) lehen erabilera eskatzen du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	995.501,41 €
Obra Amaiera partzialaren PEM:	497.750,41 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 553,64 € Fidantza (%120): 664,36 €.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko martxoaren 21an honako txostena eman du:



Usurbilgo Udala

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
A-104 ATALLU EREMUKO ATALLU KALEA 6-8AN 4.000 M2KO BI
PABILOI ERAIKITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUAREN LAU
MODULOETAKO BIREN LEHEN ERABILERA PARTZIAL
ESKAERARI TXOSTENA

ESKATZAILEA: BEREIZTU S.L.

KOKAPENA: Atallu kalea 6-8, Usurbil

ESKAERA DATA: 2017ko azaroaren 21a

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2016-604

EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 995.501,41 EURO.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 553,64 euro FIDANTZA (%120): 2
664,36 EURO.

OBRA AMAIERA PARTZIALAREN PEM: 497.750,41 euro

AURREKARIAK

- 2016ko abenduaren 2an BEREIZTU S.L. enpresaren izenean eskaera egin da Usurbilgo Udalean, Atallu kalea 6-8an dagokion lursaillean 4.000 m²-ko bi pabiloi egikaritzeko.
- 2016ko abenduaren 20an Zerbitzu Saileko buruak txostena eman du, baldintzak ezarriz.
- 2017ko urtarrilaren 18an behean izenpetzen duen teknikariak txostena eman zuen baldintzak jarriaz.
- 2017ko urtarrilaren 25ean interesatuari jakinarazi zitzaizkion udal arkitektoak eta Zerbitzuetako buruak jarritako baldintzak.
- 2017ko otsailaren 21ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen.
- 2017ko martxoaren 10ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2017ko martxoaren 17an arkitektoak ALDEKO txostena baldintzatu.
- 2017ko martxoaren 31ean Tokiko Gobernu Batzarrak obra baimena eman zuen baldintzekin.
- 2017ko maiatzaren 16an zuinketa akta izenpetu zen.
- 2017ko uztailaren 7an interesatuari dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.
- 2017ko uztailaren 11ean interesatuak dokumentazioa aurkeztu zuen.
- 2017ko abuztuaren 24an Zerbitzuetako txostena, jakinarazi zitzaiona interesatuari.
- 2017ko irailaren 13an interesatuak obra amaiera eskatu zuen.
- 2017ko irailaren 19an dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.
- 2017ko irailaren 28an udal aparejadoreak altuera zuinketaren txostena eman zuen.
- 2017ko urriaren 3an interesatuak obra amaiera dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2017ko urriaren 5ean udal arkitektoaren txostena.
- 2017ko urriaren 5ean udal aparejadorearen txostena.
- 2017ko urriaren 10ean Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak lehen erabilera partziala eman zuen.
- 2017ko urriaren 31ean udal arkitektoaren txostena.
- 2017ko azaroaren 21ean interesatuak beste 2 moduluren lehen erabilera partziala eskatu du.
- 2017ko abenduaren 29an dokumentazio osagarria eskatu zaiou interesatuari.
- 2018ko urtarrilaren 16an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2018ko otsailaren 15ean udal aparejadorearen txostena pabiloiaren altueraren neurketari buruz.
- 2018ko otsailaren 19an udal aparejadorearen txostena.
- 2018ko otsailaren 23an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2018ko martxoaren 9an interesatuaren idatzia.
- 2018ko martxoaren 14an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2018ko martxoaren 16an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2018ko martxoaren 21ean interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.

Erlazionatuak:

HZ.12 / 2016 – 0175: Atallu 6-8 lursaila bost zatitan bereizteko baimena.



Usurbilgo Udala

HZ.04/2016-277; A-104 ATALLU eremuko Atallu kalea 6-8an 2.000 m2-ko bost moduloko pabiloia egiteko baimena.

TXOSTENA

Josu Aranguren Etxeberriak, BEREIZTU S.L. enpresaren izenean, Usurbilgo Atallu kalea 6-8an 10.000 m2-ko lursailean 4.000 m2-ko bi pailoi egikaritzeko Exekuzio Proiektuaren lehen erabilera partziala eskatu du; oraingoan Atallu kalea 6 eta 8an eta Azeki Aundi Kalea 2an eraiki diren 2 pabiloi moduluena, hain zuzen ere. Argibide moduan esan liteke, Exekuzio Proiektuak lau modulo barneratzen zituela eta 2017ko urriaren 10ean Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak moduluetako bati lehen erabilera partziala eman ziola (Aintzia kalea 3 helbidea duenari); orain aurretik esan den beste bi moduluren erabilera partziala eskatu da.

Horretarako aurkeztu den obra amaierako dokumentazioa honakoa da:

- 2017ko azaroaren 21ean: obra amaiera partzialaren ziurtagiria, obra amaiera partzialaren likidazioa, memoria eta planoak, argazkiak, kalitate kontrolaren ziurtagiria eta hondakinen kudeaketaren azken txostena. Guztiak dagokion Elkargo Ofizialak ikus onetsiak.
- 2018ko urtarrilaren 16an: memoria, obra amaiera partzialaren justifikazioa eta hondakinen kudeaketari buruzko ziurtagiria.
- 2018ko otsailaren 23an: memoria, saneamendu eta hartuneen planoak eta kanpoko pabimentuaren margoaren ziurtagiria.
- 2018ko martxoaren 9an interesatuaren idatzia urbanizazio-lanak gauzatu direla ziurtatzeko 5.000 euroko bermea aurkezteko proposamena eginez, lehen erabilera baimena lanak egin aurretik jasotzeko eskatuz.
- 2018ko martxoaren 14an honakinen kudeaketako ziurtagiriak (DSCak).
- 2018ko martxoaren 16an interesatuak bankuko bermea eta lan horien aurrekontua aurkeztu du.
- 2018ko martxoaren 21ean obra zuzendariaren 2 ziurtagiri.

Berataratzea egin eta dokumentazioa aztertu ostean, honakoak esan daitezke:

- **LEHEN ERABILERA PARTZIALAREN ESKAERA:** Interesatuak adierazi duenez laugarren modulua beste enpresa bati saldu zaio eta horri dagokio zati horren obra



Usurbilgo Udala

amaierako dokumentazioa aurkeztea. Bereiztu S.L.-k berari dagozkion bi moduluen lehen erabilera baimena eskatzen du.

Gauzak horrela, ez da eragozpenik ikusten 2 pabiloi modulatori lehen erabilera emateko, hau da, obra baimena eman zen Exekuzio Proiektuaren zati bati, beti ere eraikuntza horri dagozkion baldintza guztiak betetzen badira eta obra amaituta badaude.

- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AMAIERA TXOSTENA ETA FIDANTZA:** Aurkeztu da Hondakinen Kudeaketarako Amaiera txostena eta dagozkion ziurtagiriak ere bai (DSCak).

Dena den, azken moduluaren obra bukatu gabe dagoenez, hau bukatu eta dagokion obra amaierako dokumentazioa aurkeztu arte fidantza ez itzultzea proposatzen da.

- **SUTEEN AURKAKO BABESAREN ZIURTAGIRIA:** Obra Zuzendaritzak 2267/2004 Errege Dekretua, Eraikin Industrialetan Suteen aurkako babesaren Erregelamendua betetzen dela ziurtagiria aurkeztu du, bertan egikaritu den eraikinak Riesgo Intrínseco del sector de incendio MEDIO 5 arteko neurriak betetzen direla justifikatuz.

Ondorioz, **ohartarazten da bertan jarduera bat ezartzen denean dagozkion instalazioekin hornitu beharko dela eraikina, eta haren suteen arriskua MEDIO 5-a baino altuagoa balitz, indarrean den araudiak ezarritako baldintzak betetzeko dagokion neurriak ezarri beharko dira ezinbestean.**

- **EXEKUZIO BAIMENAREKIKO ALDAKETAK: ALTXAERA ALTUERA ETA ALTUERA LIBREA:** Udal aparejadoreak egindako altuera zuinketa aktan ikusi da obra amaierako altxaeran neurtutako altuera ez dela Exekuzio Baimenean baimendutakoa, barne altuera libreak bera izaten jarraitzen duen arren (ikus udal aparejadorearen txostena). Horren inguruan, obra zuzendaritzak honako justifikazioa aurkeztu du:

“La altura libre de la nave, y la altura interior (aprovechable) de la nave se ajusta a lo indicado en el proyecto de ejecución, manteniéndose la cota de 8,2 m por debajo de la viga de cubierta, alero.

La cota de la fachada en al cumbre, se ha trasladado al resto de la edificación, generando un peto perimetral, con diferentes funciones. Por una parte la función estética, ya que la orientación de los Módulos 1 y 2 respecto a los Módulos 4 y 5 es opuesta, y estéticamente se consideró no apropiado. Y por otra parte, la función de seguridad ya que la misma, permite poder realizar funciones de mantenimiento de la cubierta y los canalones con la máxima garantía.



Usurbilgo Udala

Todo ello, ha conllevado a que estéticamente las naves sean más altas, pero queremos incidir que el aprovechamiento del volumen no se ha visto incrementado ya que la altura útil de la misma se mantiene en lo definido en el proyecto.”

Hala, alde batetik, pabiloi moduluaren barne altuera librea Exekuzio Proiektuan baimendutakoa izanik eta, bestetik, Atallu Industrialdean beste kasu batzuetan altuera handiagoak baimendu izan direla aintzat hartuta, onargarria izan liteke aldaketa hau baimentzea. Gainera, bi modulu hauen altuera dagoeneko baimendu den Aintzia kalea, 3 helbidea duen moduluaren berdina da.

- **INSTALAZIOEN BOLETINAK; PABILOIAREN BARNE-INSTALAZIOAK:** Ez dira aurkeztu pabiloi moduluaren barne instalazioen boletinak. Horren inguruan Obra Zuzendaritzak boletin horiek jarduera ezartzeko irekiera baimena jasotzerakoan aurkeztu beharko direla dio.

Baimenduta Exekuzio proiektuan ere barneratzen ez ziren heinean, ez dago eragozpenik. **Jarduera espedienteetan (eta hari lotutako obra espedienteetan) egikaritu eta ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.**

- **URBANIZAZIOKO APARKALEKU KOPURUA:** Urbanizazioan kentzen diren aparkaleku plazak, pabiloi modulora sarbideak direla-eta, eraikuntza barnean mantentzen direla ziurtatu da, Exekuzio Proiektuan baimendu bezala. Hala ziurtatu beharko da, bertan finkatzen den jarduera espedienteetan ere.
- **ERAIKINEN ARTEKO GUNEA:** udal baimeneko baldintzetan adierazi zen moduan ezingo da eraikinen arteko gunerako sarbiderik ahalbidetu, ezta gunee publikoko aparkalekuetan eraginik izan ere.
- **AZPIEGITURAK, ZERBITZUAK:** Zerbitzuetako txostenera bideratzen da.
- **JARDUERA EZARTZEA ETA BESTE OBRAK:** Ohartarazten da, pabiloi moduluan jarduera finkatu edota obrak egiteko dagozkion baimenak lortu beharko direla, ezinbestean indarrean den araudia beteaz.
- **URA AGENTZIAK EZARRITAKO BALDINTZAK:** Eraikinak erabiltzeko garaian ere URA Agentziak ezarritako baldintzak bete beharko dira.

ONDORIOAK

Ondorioz, aurkeztu den Atallu kalea 6-8an 4.000 m²-ko bi pabiloi eraikitzeko Exekuzio Proiektuaren lau pabiloi moduluetakori biri (Atallu kalea 6 eta 8 eta Azeki Aundi Kalea 2 helbidea dutenei) lehen



Usurbilgo Udala

erabilera baimena emateko eskaerari ALDEKO txostena idazten zaio, aipatutako ohar eta baldintzekin.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko martxoaren 21ean

UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2018ko otsailaren 19an emandako txostenean, egindako obrak ontzat eman aurretik hainbat baldintza ezarri zituen. Geroztik, interesatuak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2018ko martxoaren 21ean bere adostasuna eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren eta udal aparejadorearen txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: BEREIZTU, S.L. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) eremuan eraikiko 2.000 m²-ko lau pabiloi industrialetako bi pabiloi industrialen (1. eta 2. pabiloiak) lehen erabilera baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Hondakinen Kudeaketa. Obra amaiera osoa aurkeztu arte, Hondakinen Kudeaketa osoa eta dagozkien ziurtagiriekkin batera, ezarritako fidantza ez da itzuliko.
- Suteen aurkako babesa. Modulu honetan jarduera bat ezartzen denean, dagozkion instalazioekin hornitu beharko da, eta haren suteen arriskua MEDIO 5-a baino altuagoa balitz, indarrean den araudiak ezarritako baldintzak betetzeko dagokion neurriak ezarri beharko dira ezinbestean.
- Instalakuntzen boletinak. Pabiloi moduluaren barne instalakuntzei dagokionean, jarduera espedienteetan (eta hari lotutako obra espedienteetan) egikaritu eta ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- Aparkaleku kopurua. Urbanizazioan kentzen diren aparkaleku plazak, pabiloi modulora sarbideak direla-eta, eraikuntza barnean mantentzen direla ziurtatu beharko da, bertan finkatzen den jarduera espedienteetan ere.
- Eraikinen arteko gunea. Udal baimeneko baldintzetan adierazi zen moduan ezingo da eraikinen arteko gunerako sarbiderik ahalbidetu, ezta gune publikoko aparkalekuetan eraginik izan ere.



Usurbilgo Udala

- Jarduera ezartzea eta beste obrak. Ohartarazten da, pabiloi moduluan jarduera finkatu edota obrak egiteko dagozkion baimenak lortu beharko direla, ezinbestean indarrean den araudia beteaz.
- Eraikinak erabiltzeko garaian ere URA Agentziak ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- Udal aparejadoreak bere txostenean ezarritako baldintzak beteko dira.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.